ATILAREN GUTIZIA

JON ARRETXE



erein

ATILAREN GUTIZIA

41

uzta gorria

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2026ko azaroan

Saila eta azalaren diseinua:
Cristina Fernández
Maketazioa:
Asier Beltza
© Jon Arretxe
© EREIN. Donostia 2026
ISBN: 978-84-1093-155-8
L.G.: D 970-2026
EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300
erein@erein.eus
www.erein.eus
Inprimatzailea: Gertu inprimategia
Zubillaga industrialdea, 9
20569 Oñati, Gipuzkoa
T 943 783 309
gertugrafika@gmail.com
www.gertu.net

Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

ATILAREN GUTIZIA

JON ARRETXE

erein

– 1 –

A ze beroa, a ze estutasuna! Joder, hau askoz gehiago luzatuz gero ito egin behar dut. Espazio ñimiño honetan ezin dut ia atzamarrik ere mugitu, eta furgonetak zapaltzen duen zulo bakoitzean kolpea hartzen dut buruan, edo bizkarrean, edo sorbaldan… Egon! Gelditu egin gara. Kanpoan ote gaude jadanik? Ahotsak entzuten ditut, elkarrizketa bat. Maletategiko atea ireki dute, norbait askatzen ari da ezkutaturik nagoen baflearen osteko estalkia, kendu egin du azkenik… Eta segituan, nahi baino hobeto ezagutzen dudan gizon ahots bat entzun dut, iseka tonuan mintzatu zaidana:

—Zuriñe, aspaldiko!

Baflearen barrutik irten eta Zaballako zuzendari luzangaren erreboilo aurpegiarekin egin dut topo. Bi ertzain dauzka aldamenean eta kartzelako eremuaren barruan gaude oraindik, kaka! Nire gorputz txikia tentetzeko luzaketak egin behar izan ditut; gerria, lepoa, besoak…

—Nola sartu ote daiteke pertsona bat hor? –Baflerantz seinalatu du buruaz zuzendariak–. Fakir baten malgutasuna behar da, edo zure moduko judo-txapeldun handi batena, ezta?

Isilunea izan da nire erantzuna. Orduan, zuzendariak presondegiko patioan kontzertua eman duten musikariei so egin die, atsekabez; eta nik ere bai, errukiz. Furgoneta beltzetik irten dira laurak eta hor daude zutik, deserosotasuna nekez disimulatuz. Automobil beltzaren albo batean gitarra bi eta hainbat tronpeta daude marraztuta, eta «Potato berria» diote marrazkien artean idatzitako letra handiek. Hizki txikiagotan, taldekideekin kontaktatzeko telefono zenbakia eta emaila.

—Guk ez genekien ezer –bota du, batere sinesgarritzat jo ez duen ahoskeraz, Potato berriko kantariak.

—Egia da –erantsi dut nik, baina inork ez dit jaramonik egin.

Kantariak atzamar puntak biseraren azpitik sartu ditu, bere buru erabat soildua igurzteko; beste hirurek nora begiratu ere ez dakite.

—Zuekin zer gertatzen den laster ikusiko da –bota die musikariei ertzainetako batek–. Argi dagoena da, kartzelara itzultzekotan, ez dela izango kontzertua emateko. –Zerbait erantzungo ote duten zain geratu da, alferrik–. Tira, badauzkagu zuen datuak eta laster izango duzue gure berri. Orain, ospa!

Keinua egin dio kontrol-postuko langileari eta honek Zaballako kartzelatik irteteko azken barrera jaso du. Musikariak, tutik ere erantsi gabe, furgonetan sartu eta alde egin dute. Erruduntasunez ikusi ditut urruntzen.

—Eta neskato honekin zer egingo dugu? –galdetu dio ertzainak espetxeko zuzendariari, niri burlaz begira.

—Eraman nire bulegora hamabost minutu barru, mesedez.

* * *

Erreboiloa gogorarazten dit kartzelako zuzendariaren aurpegiak, bai. Niri tinko begira dago orain bere bulegoko mahaiaren beste aldetik, ez nago seguru ezker begiaz, eskuinaz edo biez aldi berean. Agian kristalezkoa da bietako bat, ez nuke jakingo esaten zein.

—Ziurrenik, oso burutsua zarela pentsatzen duzu, baina zure azken ihesaldi saio hau ez da batere originala izan, badakizu?

Bulegoko atearen ondoan tente-tente dagoen kartzelariak elkarrizketa luzatuko dela sumatu eta bere bizkar zabala erosoago ezarri du hormaren kontra. Morroskana puska da, saskibaloiko pibot ohia Ukrainako selekzioarekin. Preso egon omen zen bere garaian, baina birziklatu eta presoon zaindari bilakatu zen. Berba gutxikoa da eta beldurra sentiarazten duen begirada du; gainerako presoak izututa dauzka, baina nirekin oso ondo

portatu da beti. Agian gehiegizko babesa eskainiz, erruki kutsu eta guzti. Betikoa da, azken batean, jende gehienarekin gertatzen zait gauza bertsua.

Zuzendariak berriz ekin dio:

—1985ean jaio zinen, ezta?

—Ez naiz gogoratzen.

—Bada urte horretantxe egin zuen ihes preso famatu batek bafle baten barruan Martuteneko espetxetik. Bazenekien?

—Ez.

—Kantu bat eta guzti egin zioten, Espainia osoan modan ipini zena, «Sarri, Sarri», ez duzu inoiz entzun?

Ez dut ezer esan.

—Tira. –Eztarria garbitu du gizonak–. Bitxikeriak alde batera utzi eta harira etorriko gara. Ulertuko duzunez… –Goibeldu egin zaio aurpegiera, plantak egiten ari ote da?–, hiru ihes saio tarte laburrean ez da ez normala ez onargarria, eta zure portaerak ondorioak ekarri behar ditu.

Aurreko bi aldietan jaso nituen zigorrak etorri zaizkit gogora: lehenengoan, espedientea eta lanordu batzuk emakumeon moduluko jantokia garbitzen; bigarrenean, beste espediente bat eta lanordu gehiago lanbasa pasatzen komunetan. Ez zen hainbesterako izan. Oraingoan, ordea, zerbait okerragoa datorkidala susmatzen dut.

Zuzendariak paper bat hartu du mahai gaineko multzotik eta hari begira jarraitu du mintzatzen.

—Ez nuen hain erantzun azkarra espero, baina gaur berton ailegatu da agiri hau epaitegitik, zelako kasualitatea, ezta? –Zitalkeriaz begiratu dit. Ala amorruz? Norabide bikoitzeko begirada horrekin, ezin jakin–. Zuri buruzkoa da, hain zuzen. Zure kasua aztertzen ari ziren forentseak ondorio batera ailegatu dira, antza.

Isilpeko segundo amaigabe batzuk utzi ditu igarotzen nire erreakzioa ikusteko, baina ez diot plazer hori eman, eta papera luzatu dit.

—Badakizu irakurtzen, ezta?

Agiria jaso eta begiratua eman diot: «Zuriñe Ruiz de Gordoa, Gasteizen jaioa, *ez dakit zer badakit nor,* opio eta urre trafikoaz akusatua, *badakit nor ez dakit zer*, behin behineko kartzelaldian epaiketaren zain…». Rollo gehiegi dago eta testuaren amaierara joan naiz zuzen. Eta konklusioetan, ustekabean, hitz magikoarekin egin dut topo: «Egotzezina». Bai, ondo irakurri dut, horixe jartzen du, egotzezina naizela nire delitu guztiei dagokienez, ez naizela gai egin ditudan gaiztakerien zentzua benetan ulertzeko, libre uztea gomendatzen dutela… Ezin dut sinetsi!!!

—Esan behar dizut ni ez nagoela batere ados ebazpen horrekin. –Zuzendariak bizkarra tentetu du aulkian, deseroso dago–. Zure Downen sindromea gorabehera, zuk egotzezinetik eta gajotik nik monje tibetarretik adina daukazu, niri ez didazu ziria sartuko.

—Zorionez, forentseak ez dira zure iritzi berekoak –erantzun diot, Downoi suposatzen zaigun esanezina

imitatuz, eta erreboiloari samako zaina puztu egin zaio bat-batean.

—Lepoa jokatuko nuke… –Sumintzen ari da, eta ni dibertitzen, nekez kontrola dezake amorrua–, luze barik, hemen ikusiko zaitudala berriz.

—Zerbait egin nahi duzu apustu? –Ahoskera baldarra areago esajeratu dut.

—Eraman ezazu mongola hau hemendik! –Kartzelariari hurbiltzeko keinua egin dio.

Morroskana ukrainarraren eskutzarra sentitu dut sorbaldan, estutu txiki bat eman dit, elkartasuna sentiarazi didana. Gero haren ahots baxu sakona aditu da.

—Goazen, Zuriñe.

Andreari mespretxuzko keinua antzeman diot zuzendariari begiratu dionean. Nik, ostera, nire hazpegi «mongoloak» azpimarratu dituen irribarre zabal batekin egin diot agur.

– 2 –

Etxeko buzoia paperez gainezka topatu dut. Haien artean, jakineko propagandaz gain, abisu bat edo beste dago postetxera joateko eskutitz zertifikatuak jasotzera, baita notariotza batetik bidalitako gutun bat ere.

Zabor guztia postariaren buzoian sartu, gainerako paperak eskuetan hartu eta bigarren solairura igo naiz. Eta giltza sarrailan sartu eta jiratzen ari naizela, bizilagunaren atea ireki eta andre bat irten da eskailburura, tinko begiratu didana. Hor bizi zen Julian errioxarraren senideren bat dela ondorioztatu dut; Julian zaharra, Julian maitagarria, niri laguntzearren bizia galdu zuen Julian gaixoa, Rulo adiskideak bezalaxe. Beti sentituko naiz zorretan haiekin. Andreari agurea zenbat estimatzen nuen aitortzeko izan naiz, baina zuzendu didan begirada hiltzaileak ezer esateko gogoa kendu dit, eta gainera, berehala berriz etxean sartu eta danbada batez itxi du atea. Portaera horren zergatia ulertu gabe, ni ere neure etxebizitzan sartu

eta zuzen joan naiz egongelako pertsiana altxatzera. Eta ehundaka aldiz egina nuen keinu horren ondoren, gaur, sentsazio pixka bat desberdina izan dut. Gaur iruditu zait begi-bistan geratu den Zaramaga auzoko eliza, beharbada, ez dela hain-hain zatarra.

Gero besaulkira utzi dut erortzen neure gorputza, kartzelan sartu aurretixe, nire negozio ilunetako irabaziei esker erosi nuen eserleku berri erosora, eta atseginez ikusi dut betiko lekuan daudela hormako irudiak: Baskonia saskibaloi taldearen posterra, nire judo-txapelketa arrakastatsuenei buruzko artikulu argazkidunak, nire izena daraman federazioko agiria, Julian eta Ruloren argazkiak… Pixkatxo bat desorekatuta ote daude azken hauek? Zutitu, koadro bat milimetro pare batez jaso, bestea zentimetro erdiz jaitsi… Besaulkira itzuli naiz, eta bai, orain bai, onespen keinua egin dut.

Atsedenaldi laburraren ondoren, gela guztietako pertsianak jasotzen jarraitu dut eta sukaldera heldu naizenean, hozkailuaren edukiari eman diot begiratua. Ikuskizuna etsigarria izan da: kadukatuta ez dagoen gauza bakarra Pepsi Zero-Zero lata bat da, Ruloren hurrengo bisitarako gorderik nuena. Eta armairuetan Julianek oparitutako ardo botila bakan batzuk baino ez ditut aurkitu. Eta, jakina, zoko-mokorik ezkutuenean gorderik izan nituen urrearen eta opioaren arrastorik ere ez dago.

Kasualitate bitxi batzuen ondorioz amaitu zuen jenero horrek nire eskuetan. Bertoko trafikatzaile batzuek urrea eta bitxiak bidaltzen zituzten atzerrira, eta opioa jasotzen

zuten horren truke; ni bitartekari lan baterako kontratatu ninduten, gauzak ez ziren espero bezala atera, aferan nahastutako gehienek hilda amaitu zuten, eta nik bizirik baina, handik gutxira, kartzelan. Ziegako hausnarraldi luzeetan, bizipen horiek aprobetxatuz liburu bat idaztea otu zitzaidan. Eusten diot asmoari, ziurrenik diru asko aterako nuke horren salmentaz, etorkizunean, baina ni ez naiz etorkizunean bizi. Nire sabela hutsik dago orain eta oraintxe exijitzen dit hornidura.

Ofiziozko nire abokatuak, Andonik, egoera ekonomikoa zein penagarria dudan jabetuta, euro batzuk eman dizkit kartzelatik ateratzerakoan. Dena dela, haren hitzetan, kopuru hori aurrerapen txiki bat baino ez da izango, hemendik gutxira dirutza irabaziko baitugu «taldekide guztiok», buruan darabilen plana martxan jartzen dugunean. Oraindik ez dit xehetasun handirik eman ez bere planaz ez taldearen izaeraz, baina laster deituko omen dit gelditzeko. Eta, hozkailua, despentsa eta kontu korrontea dauzkadan bezala edukita, edozein diru-iturriri onespena eman beharko diot, guztiz legala izan ez arren. Eta apustu egingo nuke Andonik buruan darabilena, guztiz legala barik, guztiz ilegala dela.

* * *

Hemengo arboladiak, hemengo belardiak, hemengo isiltasuna… Nire buru gaineko adarrak ferekatzen dituen

haizearen xuxurla besterik ez da entzuten paseatzen naizen bitartean, txori kanturen bat ere bai tarteka… Gasteizko bazter hau kriston eremu atsegina izan liteke, Salbatzailearen kanposantua ez balitz eta hilobiz beterik ez balego.

Bizpahiru minutu falta dira adostutako ordurako eta ez naiz lehenengoa izango ailegatzen. Hor aurrean ikusten dut, gerizpean, bero sapatik babestuta eserleku baten alboan, gizon gazte txiki bat. Hasieran ia ez dut ezagutu, ile motz-motza estaltzen dion bisera ilunagatik ez ezik, jantzita daukan txandal beixagatik ere. Arraroa egiten zait horrela ikustea, kartzelan bisitatu nauenean beti dotore jantzi da eta. Dena den, txandala, oso zatarra izan arren, trajea baino hobetoxeago geratzen zaio nire abokatuari, bere gorputz meheko tripa bitxia disimulatze aldera.

—Kaixo, Zuriñe.

—Kaixo, Andoni.

Bostekoa eman diogu elkarri eta jarlekuan eseri da. Nik, ostera, bizkarrean nekarren motxila txikia askatu, ireki eta bi gauza atera ditut, Pepsi Zero-Zero lata bat eta botila bat ardo.

—Kalimotxoa egin behar dugu zure askapena ospatzeko, ala? –galdetu dit–. Ez dakit hau leku aproposena den…

Ez diot erantzun. Besterik gabe, bi objektuak hartu eta ehorztokien eremurantz abiatu naiz. Haietariko batzuk ikusgarriak dira, familia osoen gorpuzkiak gordetzeko

espazioa daukatenak, denetariko apaingarriez hornituak, lore-sortak nagusi direla. Ni, ordea, pobreen edo zekenen gunean gelditu naiz, nitxo txikien alderdian. Hauek, tamainaren arabera, hilkutxak barik, errautsak gordetzeko erabiltzen dira. Berrogeita hamarretik gora egongo dira guztira, bost altueratako bloke batean, erdiak oraindik bete gabe. Ilara berean daude Rulo betiko lagunari eta Julian errioxarrari dagozkienak, eta haien azpian utzi ditut botila, Julianenean, eta lata, Rulorenean.

Abokatuak nahasturik so egin dit harengana bueltatu naizenean, baina ez diot aukerarik eman ezer galdetzeko.

—Libre geratuko dira Potato berrikoak? –bota dut berehala.

Andonik sorbalda-jasotze keinu etsia egin du eta erantzun egin dit:

—Zorte apur batekin, bai. –Lepoa jiratu eta atzealderantz begiratu du, belarriluzerik ez dagoela ziurtatzeko–. Zuk esaten baduzu epailearen aurrean, horren beharrik egonez gero, musikariak ohartu gabe sartu zinela euren baflean, uste dut zigorraz libratuko direla.

—Eta ni ere libratuko naiz, forentseek egotzezintzat jo ondoren.

—Noski, baina tentuz jokatu behar dugu, ez zaigu komeni pribilegio horretaz abusatzea.

—Nola lortu zenuen?

—Gako batzuk egon ziren: Lehenengoa, agiri batzuk «desagertzea», batez ere zure Downen sindromea

mosaikoa dela dioena. Zure etxean zegoen papera ez du inork aurkituko eta ez dut uste beste inon agertuko denik horren frogarik. –Irriño bihurria egin du–. Apur bat gehiago kostatu zitzaidan, dirutan batez ere, norbaitek DGTn zure gidabaimenari buruzko datuak ezabatzea. Ez litzateke oso logikoa izango Down egotzezin batek autoa gidatzeko gaitasuna izatea.

—Batez ere hain adimen-koziente baxua edukita, kartzelan bertan egin zidaten testak adierazten zuenez, ezta?

—Jakina, baina pasatu egin zinen, ez zen beharrezkoa testa hain txarto egitea. Forentseek, zorionez, ez zuten proba genetikorik eskatu. Azken batean, zure delituak ez ziren hain-hain larriak. Dena dela, esan dizudanez, aurrerantzean kontuz ibili beharko duzu. Zure autoan etorri zara hona?

—Bai.

—Ba sentitzen dut, baina agur esan beharko diozu. Gero utzi toki publikoren batean aparkatuta; adibidez, zure auzoko merkataritza-guneko parkingean, eta ez ukitu berriro. Luze barik autoak desegiteko toki batera eramango dugu eta kito. Eta zure gidabaimena lehenbailehen erre.

Andoni begira geratu zait eta, erantzuten ez diodala ikusita, insistitu egin du:

—Konforme, Zuriñe?

—Konforme.

Adostasuna adierazi arren, pena handia emango dit nire auto zaharrari behin betiko agur esateak. Joder, etxean daukadan bizikleta are zaharragoa puntuan ipini beharko dut, nolako nagikeria! Tira, egotzezintasunaren prezioa.

Beste pertsona bat sartu da hilerrian eta hurbiltzen ari da gu gauden lekurantz, bera ere biseraz eta txandalaz jantzita, abokatua bezala, ni neu bezala. Kasu honetan atoan ezagutu dut, haren gorputz erraldoi eta ibilera bereziaren kontura, kartzelako pasabideetan egunero ikusten nion ibilera tente-tentea. Janzkera aukeratzerakoan nire helburua itxuragatik ez nabarmentzea zen, baina horretan ere ez naiz originalegia izan, antza. Esango nuke orain osatzen dugun hirukotea nahiko deigarria suertatzen dela edonorentzat, deigarriegia, agian.

—Kaixo, Luba –esan dio Andonik heldu berriari, baina kartzelariak ez du erantzun. Bere ohiturari jarraituz, buruko mugimendu huts batez agurtu gaitu–. Informazio interesgarriren bat ekarri diguzu?

Oraingoan bai, ukrainarrak irri laurden bat egin eta ahoa ireki du:

—Oso interesgarria.

* * *

Joan naiz, azkenean, Gasteizko postetxe hurbilenera, eta buzoian aurkitu nituen abisuen truke eskutitz zertifikatu

batzuk luzatu dizkidate. Begiratua eman diet eta, susmatzen nuenez, argiaren eta uraren mozketa mehatxuak ziren, ordainagiriak ez kitatzearen ondorio. Arazo hori, zorionez, konponduta daukat Andoni abokatuak eman didan bigarren diru-kopuruari esker, lehengoa baino handiagoa, berriz ere aurrerapen gisa laster irabazten hasiko omen garen «dirutza» horren kontura.

Eta nire negoziokide berriaren laguntza primeran etorri zait eginkizun neukan beste gauza baterako ere, susmo txarra eragiten zidan notariotzako bisitarako. Hitzorduaren arrazoia zein izan zitekeen asmatu ezinik jesarri gara biok notarioaren aurrean, honek nortasun agiria eskatu dit eta, datuak zuzenak direla egiaztatu ondoren, bonba bota du:

—Zuriñe Ruiz de Gordoa Perez de Gebara. –Bere betaurreko txikien gainetik so egin dit, emozioa emateko bezala, eta lortu du–. Gasteizko Zaramaga auzoan zure bizilaguna omen zen Julian Samaniego Martinez de Eulate jaunak testamentuan idatzita utzi zuen Bastida herrian zeukan bodegaren oinordetza zuri dagokizula.

Berria entzutean aho zabalik geratu naiz. Agurearen aurpegia etorri zait gogora, haren jarrera atsegin bezain naturala nirekin mintzatzen zenean, hark eskaintzen zidan tratu maitagarria, inoiz izan ez zuen alaba banintz bezalako tratua… eta negar egitear egon naiz. Julianen Zaramagako pisuan zegoen andrearen begirada hiltzaileaz ere oroitu naiz bat-batean, eta orain bai, ulertu dut

gorroto aurpegi haren arrazoia. Notarioaren ahotsa entzun da berriro:

—Izapide batzuk egin beharko dituzue gauzak formalizatzeko, ohikoa besterik ez. –Andoniri begiratu dio.

—Arazorik ez. Dena dela, bodegako giltzak hemen dauzkazue?

—Ez. –Eztula egin du notarioak–. Problematxoren bat dago Julianen senideekin. Haiek diote bera zela giltzak zeuzkan bakarra, beraiek ez daukatela kopiarik. Baina hildakoaren ondasunen artean ez omen dira ditxosozko giltzak agertu. Badakizu zer gertatzen den honelakoetan, herentziaren zati bat familiatik kanpoko norbaiti lagatzea ez da erraz onartzen eta…

—Lasai, hori ere ez da arazoa. Dena den, agiriren bat sinatu beharko du Zuriñek, ezta?

—Bai, hementxe daukat dena prestatuta.

* * *

Esan didaten ordua pasatu egin da eta furgoneta ez da oraindik agertu. Gorroto dut puntualitaterik eza, urduri ipintzen ari naiz…

Lasai, Zuriñe, gogoratu judoko entrenamenduetako arnasketa ariketak: sakon hartu, beheraino, eutsi apur batean, gero astiro bota…

Lanbide berriko lehenengo zeregina da hau, eta irrikaz nago Lubak kanposantuan pasatutako informazio

pribilegiatua egiazkoa ote den jakiteko. Dirudienez, kartzelari ukrainarra, Andoni eta hirurok izango gara negoziotalde berriaren partaideak. Abokatuak, planaren asmatzaileak, zera proposatu du: berak, lider intelektuala izanik, estrategiak zehaztuko ditu; Lubak, presoekin dauzkan kontaktuak aprobetxatuz, aberastuko omen gaituzten txibatazoak lortuko ditu; eta nik kaleko lanaren ardura edukiko dut eta ekintza gehienen gauzatzailea izango naiz, pibot ohiaren laguntzaz beharrezkoa denean. Diru kontuak errazak dira: gure informatzaileei dagokiena ordaindu ondoren, hiru herenetan banatuko ditugu irabaziak. Ez dakit ba, ez dirudi plan txarra eta probatu egin beharko. Ea ondo hasten garen, behintzat.

Hor datorrela uste dut… Bai, ailegatu da azkenik, sei minutu eta erdiko atzerapenaz, furgoneta banatzailea gozotegiaren aurrera eta erne ipini naiz. Gidaria autotik irten da, itxura arrunteko gizon latinoa da, ez nuke esango trafikatzailea denik. Hala ere, nolako itxura daukate trafikatzaileek? Ni neu ere ibilita nago halako zereginetan, eta nork esango luke gaizkile arriskutsua naizela? Inortxok ere ez. Hain zuzen, nire itxurazko xalotasunaz baliatu naiz orain arte, eta baliatuko naiz aurrerantzean aldrebeskeriak egiteko. Ez fidatu inortaz, Zuriñe.

Furgonetaren atzeko atea ireki du gidariak eta hainbat pastel eta gozoki erretilu geratu dira agerian, mota desberdinetakoak. Listu jarioa sumatu dut ahoan, eta Lubaren hitzak gogoratu ditut: «Goxuen barruan». Preso

fidagarri batek aitortu zion sekretua, antza. Postre horietan ezkutatzen omen dituzte kokaina-poltsatxoak eta, benetako pastel-banaketa aprobetxatuz, Gasteizko alde zaharreko gozotegi jakin batean uzten dute jakineko erretilua, gero hortxe bertan saltzeko kontsumitzaileei. Begien aurrean daukadana da gozotegia, Aldapa.

Banatzaileak furgonetaren atzealdetik goxua-erretilu handi bat atera du, gutxienez ehun ontzitxo izango dituena, eta gozotegira joan da, autoaren atea erdi irekita utziz. Gaur, berez, kontrol lana egitera baino ez naiz etorri, baina ezin izan diot tentazioari eutsi. Furgonetara hurbildu, natazko bonba bat hartu eta bizkor itzuli naiz nire jarlekura.

Gerriaren ostean ezkutatu dut opila banatzailea gozotegitik irten denean. Atea itxi du, lapurreta txikiaz ohartu gabe, eta alde egin du. Bonba jaten hasi naiz.

—Kaixo, txinita, zati bat emango didazu?

Nire jarlekuaren beste puntan jesarri berri den morroi argal batek egin dit galdera. Beltzez jantzita doa goitik behera eta kolgatuta egoteko itxura guztia dauka.

—Zer txinita eta zer arraio? Utzi bakean.

Zuzenago begiratu dit. Daukan babo aurpegiaren arabera, esango nuke ez duela piperrik ikusten. Edonola ere, nire bonban tinkatu du arreta.

—Gose naiz, txinita.

—Ni ere bai.

—Errukitu nitaz.

Ideia bat bururatu zait.

—Mesede bat egiten badidazu, erdia emango dizut.

—Zer mesede?

—Sartu gozotegi horretan eta galdetu ea goxuak dauzkaten, eta, baietz erantzunez gero, ea zenbat balio duten.

—Zer da goxua?

—Zu ez zara gasteiztarra, ezta?

—Ez, paseko hegaztia naiz. Zer ba?

—Tira, ez dio ardura. Zu sartu eta galdetu esan dizudana.

Ezer erantsi gabe altxatu du morroiak bere gorputz eskeletikoa eta, oinak arrastaka, Aldapa gozotegian barruratu da. Hortik minutu pare batera itzuli da niregana.

—Esan didate goxua arruntek lau euro balio dutela, eta bereziek ehun eta lau.

Beste haginkada bat eman diot bonbari eta sobrantea tipoaren eskuetan utzi dut. Nire burua lanean hasi da.

* * *

Ordu erdi baino ez da behar Gasteiztik Bastidara ailegatzeko, eta Arabako Errioxako herri horren sarreran gaude jada Andoni, Luba eta hirurok, abokatuaren auto modernoaren barruan. Uda partean laukoiztu egiten da Bastidaren populazioa, baina opor garaitik kanpo herri lasaia da eta gaurko egun eguzkitsu honetan hutsik dagoen

kale aldapatsu batetik igotzen ari gara. GPSari jarraituz, arazorik gabe iritsi gara helmugara, herrigunea bukatzen den tokian dagoen azken etxe-ilarara. Hemendik gora, mahasti ugari eta, haien artean, Toloño mendirantz daramaten pista eta bidezidorrak.

«Bodega» hitza aditzean beste zerbait imajinatu nuen, ze Julianenak, kanpotik ikusita behintzat, ez dirudi herriko etxetxo apal horietako bat baino. Edonola ere, nire bidaideek oso argi daukate ekintza plana. Aparkatu bezain laster, Luba zuzen eta artez joan da sarrerara, erremintakutxa eskuan, eta, mailu bat eta ezten bat erabiliz, kolpe pare batez lehertu du sarraila. Gero belauniko jarri eta kutxan arakatzen hasi da.

—Zenbat denbora beharko duzu sarraila berria ipintzeko? –galdetu dio abokatuak.

—Hamar minutu.

—Primeran. Bien bitartean, zure jabetza berria aztertu nahiko duzu, ezta, Zuriñe?

—Noski, baina ziur zaude ez dagoela arazorik era honetara sartzeko?

—Guztiz. Toki hau orain zeurea da legearen arabera, eta nahi duzun guztia egin dezakezu berarekin, baita sua eman ere.

Ukrainarra lanean utzita, sartu gara, bada, beste biok etxean, eta solairu guztia espazio bakar bat dela ohartu gara; komun txiki bat da bereiztuta dagoen gelaxka bakarra. Lurreko harlauza gorri ilunen gainean, mahai zabal

bat, egurrezko jarleku luze bi eta hainbat aulki. Horrez gain, hozkailu txiki bat, harraska eta apalategiak baxera kokatzeko, beheko sua izkina batean, haren ondoan parrila belztua mahats-aihen lotu batzuen gainean, hormetatik zintzilik argazki zaharrak, inbutuak, zintzarriak, gomazko tutu luzeak… eta lurrean, bazter batean, CD-erreproduzitzaile zahar bat. Bizitzeko barik, txoko moduan erabiltzeko zuten toki hau, antza.

Upelak edo botilak non ote dauden hausnartzen ari naizela, Andoni bazterrak miatzen hasi da, zerbaiten bila bezala, eta, luze barik, barruko puntaren ezkerraldeko txokoan, beste ate txikiago bat aurkitu du, hau ere giltzaz itxia.

—Luba, mesedez.

Eta Lubak, azalpenen beharrik gabe eta lehengo teknika bera erabiliz, beste sarraila bat desegin du aitaren batean.

—Beste hamar minutu? –galdetu dio Andonik.

Baiezko keinu huts batez erantzun dio Zaballako kartzelariak.

Abokatuak argiaren etengailua aurkitu eta piztu duenean, zirraraz ikusi dut bigarren ateak ezkutatzen ziguna: kobazulo moduko bat, estu samarra sarreran, batbatean beheraka doana lurrean bertan egindako maila batzuetatik.

—Neu joango naiz aurretik –esan du Andonik, eta niri ondo iruditu zait.

Tentuz jaitsi gara, lur labainkorraren eta argi eskasiaren arduraz. Izan ere, hemen barruan dauden bonbilla apurrak edo oso makalak dira edo hondatuta daude, beharbada hezetasunaren eraginez. Tenperatura-jaitsiera ere bat-batekoa izan da, alde itzela dago kaleko bero itogarritik hona. Gure altuera txikiak erraztu egin digu ibilera, ez dakit nola moldatuko litzatekeen Luba erraldoia hemendik manejatzeko bere gorputzarra. Dena den, aurrera joan ahala, kobazuloa nahiko zabaldu da, eta buztinezko horma umeletan egindako zulo ugarietan, ardobotilak agertzen hasi dira nonahi.

Julianek esana zidan bere bodega oso txikia zela, apala, arrunta, baina nik ez nuen honelakoa imajinatu. Altxorraren kobazulo misteriotsua topatu banu bezala sentitu naiz, erabat kilikaturik. Eta kilikadura handitu egin da egurrezko upel txiki batzuk ikusi ditudanean bazter batean, erdi ilunetan. Haietariko bat beterik dagoela dirudi, luzaroko daukat ardoa hemen.

Upelen gainean, hormak sabaiarekin bat egiten duen tokian, zulo bat dagoela ohartu naiz. Upel batean kontuz igo eta, mugikorraren linternatxoa erabiliz, zuloaren ostean dagoena ikusten saiatu naiz. Gorputz txiki bat baino ezin liteke hemendik sartu.

—Zeri begira zaude, Zuriñe? –galdetu dit Andonik.

—Badirudi halako pasadizo bat dagoela.

—Esaten dutenez, herrietako familia-bodega txiki hauek euren artean komunikatuta egoten dira.

Argi-izpia norabide guztietara zuzendu dut, baina buztina eta iluntasuna besterik ez dut ikusi.

—Estaliko dut zuloa?

—Zeuk ikusi, zeurea da bodega.

Orduan Lubaren ahots baxuaren oihartzuna aditu da:

—Listo!

—Bagoaz? –itaundu dit Andonik, eta upeletik jaitsi naiz, toki honetara luze barik itzuli beharko dudala pentsatuz.

* * *

Goitik behera beltzez jantzitako morroi eskeletikoa Aldapa gozotegian sartu eta ahots irmoa jartzen saiatu da:

—Goxua bat nahi dut, berezia.

Dendariak, bizi-barkatzaile itxurako gizon gazte begi ilunak, bere kokospeko ileak igurtzi eta segundo pare batez tinkatu dio so mesfidatia bezero berriari.

—«Berezia» esan duzu?

—Bai.

—Badakizu zenbat balio duen?

—Ehun eta lau euro.

—Eta badaukazu zerekin ordaindu?

—Jakina.

—Dirua ikusi nahi dut.

Morroiak eskua poltsikoan sartu eta zerbait ateratzekoa egin du, oso azkar, lipar batez agerian utziz berrogeita hamar euroko billete bat.

—Itxaron hemen –esan du saltzaileak, zalantza une baten ondoren, eta dendaostean sartu da.

Eta minutu erdiren ondoren, goxua-ontzitxo bat eskuan itzuli denean, ez du salmahaiaren beste aldean jonki itxurako morroia ikusi, baizik eta beste bi pertsona erabat desberdin, bata oso handia, bestea oso txikia, biak txandal urdin ilunaz jantzita. Emakumeak direla esango luke, nahiz eta biek txanoa eta betaurreko ilun zabalak eduki. Handienak pistola dauka eskuan, berari apuntatuz, baina txikia mintzatu zaio, emakume ahots bareaz:

—Orain zurekin sartuko gara dendaostean eta goxua berezien erretilu osoa emango diguzu. Ulertu duzu?

—Ulertu dut.

—Eta gero lotuko zaitugu eta gutxienez bost minutuz itxarongo duzu askatzeko ahaleginik egin gabe. Ados?

—Ados.

Lapur handiak pistolaren puntaz keinua egin dio dendaosterantz abiatzeko, eta saltzaileak obeditu egin du. Sartu aurretik, zeharka so egin dio sabaiko puntu erdi ezkutu batean dagoen kamerari.

* * *

—Zure neba xelebreak ederra liatu du, ama –esan du emakumeak. Lehengoan Zaramagako etxeko eskailburuan Zuriñeri begirada hiltzailea zuzendu ziona da, berrogeita hamar bat urteko andre beltzarana, zakarra keinuz zein hizkeraz.

—Ez nuen halako azpikeriarik espero Julianengandik. Nork imajinatuko zuen…? –Bukatu gabe utzi du esaldia berarekin dagoen txistu ahotseko atsoak.

Isilik geratu dira biak, atsekabearen isla aurpegian, bata bodegako atearen sarraila sendoari begira, bestea Toloño mendiaren puntara.

—Notario lotsagabe horrek lehenago abisatu baligu… –Berriro txistu ahotseko atsoak.

—Horrek ez dauka bueltarik, ama. Orain zerbait pentsatu behar dugu, azkar, atzeratu horrek ezer aurkitu baino lehen.

—Julianen pisuan ez zenuen topatu, ezta?

—Ez, goitik behera arakatu arren.

—Orduan…

—Orduan hemen egon behar da ezkutatuta. Pasabideko zuloan, imajinatzen dut.

—Eta zer egin dezakegu geuk eskuratzeko atzeratuak baino lehen?

—Lehenengo eta behin, beraz libratu, eta zeregin honetarako, nik dakidan gizon baten laguntza oso ondo etorriko litzaiguke.

—Bernarrengan pentsatzen ari zara, ezta?

—Noski.

Atsoak hasperen egin du.

—Aurrekoan egin zuen lardaskeriaren ondoren…

—Bernar halakoa da, onerako zein txarrerako, baina presaka gabiltza eta ez zait beste irtenbiderik bururatzen. Zuri?

Esaldiak amaitu gabe uzten dituen atsoak, oraingo honetan, buruko keinu huts batez adierazi du ezetz.